



Tolosaldeko Txolarre Irratiak 1.000. saioa egingo du gaur

LAU URTE ETA ERDI ▶ Lau urte eta erdi darama eskualdeko gaiak entzuleei gerturatzen

GAUR ▶ Irratsaio berezia izango da gaurkoa; eskualde guztira zabaltzea da hurrengo erronka ▶ 4



Txolarre Irratiko esatariak atzo arratsaldean, gaurko irratsaio berezia prestatzen emisorean. IMANOL GARCIA

ALEGIA ▶

«Maila handia» du Unanue koralak

Kontzertua eskaini du Txintxarrik gonbidatuta ▶ 5

ARESO ▶



J.ASTIBIA

Areso B, bigarren sokatira sariketan

Euskal Herri mailakoa izan da, launaka ▶ 7

IBARRA ▶

Gorabehera asko izan du Lauburuk ▶ 6

TOLOSA ▶

HITZAK eta Udalak hiru urterako hitzamina sinatu dute

Galtzaundik, Txolarrek eta Kontseiluak ere udal diru laguntza jasoko dute ▶ 2



Sinaketan parte hartu zutenak atzo udaletxearen aurrean. J.SAIZAR

EUSKALGINTZA ▶

Hiru urterako hitzarmena sinatu dute HITZak eta Udalak

Galtzaundi aldizkariak, Txolarre Irratiak eta Kontseiluak ere sinatu dituzte



Udala, HITZA, Galtzaundi, Txolarre eta Kontseiluko ordezkariak hitzarmenak sinatzen atzo, udaletxean. JOXEMI SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK eta Tolosako Udalak hiru urterako hitzarmena sinatu zuten atzo, udaletxean egin zuten ekitaldian. Euskalgintzako beste elkarte batzuek ere euren hitzarmenak sinatu zituzten Udalarekin: Galtzaundi Euskara Taldeak, Txolarre Irratiak eta Kontseiluak.

Lehen aldiz sinatu dute Udalak eta HITZak akordioa. Euskarazko eskualdeko egunkaria sortu zenetik —duela hiru urte eta erdi; *Tolosaldean Egunero* zen orduan— Udalak diruz lagundu du, baina urte baterako laguntzak izan dira. Orain sinatu duten hitzarmenari esker, legegaldia bukatu arteko laguntza eta elkarlana ziurtatzen da (2007 artekoa). Hitzarmenaren zehazten denez, aurtur HITZak 40.000 euroko laguntza jasoko du Udaletik, eta «hedabideetako beste euskarri batzuk ere laguntzeko aukera izango da».

Atzo sinatutako lau hitzarmenak, «euskarak dituen desabantailak gainditzeko lan txukuna» egiten duten elkarteak laguntzeko direla esan zuten Ontintza Lasa Udala Euskara ar-

duradunak. «Urtez urte sinatu beharrean, HITZarekin hiru urterako akordioak sinatzeak egonkortasuna ematen dio».

Euskarazko euskal komunikabideekin hasieran diru laguntzekin izan zituzten «arazoak» aipatu ondoren, «indarrak metatzeko gonbitea» luzatu zuten Jokin Bildarratz alkateak sinaketa ekitaldian, «euskararen aldeko mugimendu indartsua sortzeko». «Euskal komunikabideak egoera zailean egon arren, komunikabide lokalak positiboak dira, gure esparrua gehiago lantzen dutelako», erantsi zuen.

Enekoitz Esnaola, HITZAREN enpresa Tolosa Herria Hedabideetako lehendakariak esan zuen hitzarmenak «lan egiteko lasaitasun handiagoa» ematen diela, eta «aurrerera begiratu eta sor daitezkeen proiektu berrietarako elkarlana bultzatu» behar dela azpimarratu zuen. Tokiko telebistaren gaiak garrantzi handia hartuko duela esan zuen Esnaolak, laster legedi berria martxan jarriko delako: EAE hamabost eskualdetan banatuko dute —Tolosaldea izango da horietako bat—, es-

JOKIN BILDARRATZ TOLOSako ALKATEA

«Indarrak metatzeko gonbitea luzatzen dut; komunikabide lokalak positiboak dira, gure esparrua lantzen dute»

ENEKOITZ ESNAOLA TOLOSa HERRIA HEDABIDEAK

«Sor daitezkeen proiektu berrietarako, garrantzitsua izango da udalekin era honetako lankidetzan aritzea»

kualde bakoitzean lau kate egongo dira eta Eusko Jaurilartzak banatuko ditu baimenak. «HITZaren helburu nagusia, eskualde mailako komunikabideak sortzea da. Egunkaria badugu, webgunea ere bai, eta hor dago telebistaren gaia, oso gai garrantzitsua. Ahal den euskarazko kate gehien euskarazkoak izan daitezzen borrokatu beharko da euskalgintza, eta HITZak telebistaren terrenoan lan egiten hasi beharko du. Hor

garrantzitsua izango da udalekin era honetako lankidetzan aritzea».

Beste lekuetarako eredu

Udalaren gonbitea «aspaldi hartuta» dutela esan zuen Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusiak, berak ere eskerrak ematearekin batera. Tolosan eta Tolosaldean egiten ari den lana «beste lekuetarako eredu» dela zioen, eta Bai Euskarari akordioa 79 gizarte eragilek sinatu dutela gogoratu —50 Tolosakoak dira—. «Komunikabideetarako garai zailak» datozela esan zuen Mendigurenek, tokiko telebisten gaia aipatu zuen, «eta euskararen aldeko hedabide berriak eraiki behar ditugu tinko».

Txolarre Irratiak Jon Mirandak, eskerrak eman ondoren, sendotzeko ematen ari diren «pauso txikiak» aipatu zituen, eta gaur bertan 1.000. saioa egingo dutela gogoratu zuen.

Galtzaundi Euskara Taldeko Zigor Agirrezabalak, «une honetan baliabideak racionalizatzeko apustu berezia» egiten ari direla adierazi zuen eta eskerrak eman zizkion Udalari.

UDALA-HITZA AKORDIOA ▶

«Euskararen erabilera areagotzeko lanean» ari dela eta «honen onuradun herria» dela aitortuta, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN «geroa ziurtatu eta sendotzea komenigarria» iruditu zaio Udalari. Hauek dira akordioaren puntu nagusiak: **Elkarlana.** Helburua, elkarlanean hedabideen alorrean «euskararen erabilerearen normalizazio-lanak bideratzea» da. **Laguntza.** Tolosako Udalak diruz lagunduko du HITZA egunkaria. «Ekimen-zerrenda irekia da eta hedabideetako beste euskarri batzuk ere diruz laguntzeko aukera izango da, beti ere Udalaren eta HITZAREN artean osatutako lan-taldeak adostutako proiektuak izanez gero». **Lan-taldea.** Lan-talde horrek urtean pare bat aldiz bilera egingo du, «batetik hitzarmenaren jarraipena gauzatzeko eta bestetik hedabideen alorrean aurrerabideak aztertu eta beharrezkoak izan daitezkeen egitasmoak abian jartzen saiatzeko».

BESTE AKORDIOAK ▶

Hiru kasuetan elkarrekin euskararen alde egiten ari diren lana aipatzen da eta hitzarmenaren jarraipena egiteko lan-taldeak sortuko direla zehazten da. Urtebeteko hitzarmenak dira hiru kasuetan.

Kontseilua. Ekintza Planaren alor nagusiak —estatus legala eta gizartearen babes soziala— garatzeko eta Tolosaldeko Bai Euskarari Akordioan aholkulari izaten jarraitzeko 6.000 euro jasoko ditu Udaletik.

Txolarre Irratia. Aurtur astean bost egunetan goizean hiru orduko programa Tolosaldeko berriak jorratuz eta iluntzetan mota desberdinetako irratiaioak egiteagatik 6.000 euroko diru laguntza emango dio Tolosako Udalak.

Galtzaundi Euskara Taldea. Aldizkaria hamabostaldiero argitaratzeko, gizarte eragileekin (talde, enpresa, denda, taberna, erakunde...) euskararen erabilera areagotzeko Bai Euskarari konpromisoen prozesua aurrera eramateko eta hainbat kultur jarduerara antolatzeko 26.000 euro jasoko ditu.

GIZARTEA ▶

GURE TXOKOA ELKARTEAREN 75. URTEURRENA ▶ ASTE HONETAKO EGITARAUA

GAUR, ASTEAZKENA
'Frontoitik eskolara, Tolosatik Saharara' pilota jaialdi berezia. 19:00etan, Beotibar frontoian. Hiru partida jokatu dira: lehendabizikoan, Beloso eta Renobales pilotariak lehiatu dira, buruz buru, lau t'erdian. Ondoren, Periko Alonsok eta Santi Bakerok osatutako bikotea Estanis Argotek eta Kuko Zigandak osatutakoa izango dute aurkari, palaz, gomazko pilotarekin. Era berean jokatuko dute

hirugarrena Joxean eta Inaxio Tolosa anaiek eta Euskitzek eta Garikoitz Mendizabal txistulariak. 5 euro balio du sarrerak, eta jasotako dirua Tolosaldea Sahararekin elkarre errefuxiatu kanpamenduetan aurrera eramaten ari den proiektua laguntzeko bideratuko da. Afarien zozketa ere egingo da ikusleen artean.

BIHAR, OSTEGUNA
Kirola ikuspuntu berri

batetik; kirol medikuntzari buruzko mahai-ingurua. 20:15ean, Gure Txokoa elkartearen, Euskal Bizikletaren etapa Tolosan amaituko dela eta. Hizlariak: Iñaki de Mujika (Herri Irratia), Benito Urraburu (DV) eta Xabier Usabiaga (EITB). Moderatzailea: Iñaki Arratibel kirol medikua.

ETZI, OSTIRALA
Galiziako ardo zurien aurkezpena eta dastaketa. 20:00etan, udaltxeko batzar

aretoan. Larunbateko azokan parte hartuko duten Rias Baixas eta Ribeiro J. D. aurkeztu eta dastatu egingo dituzte. Roberto Ruiz Fronton jatebtxeko sukaldariak egingo ditu aurkezpen lanak.

LARUNBATA, HILAREN 4A
Ardo Zuriaren Azoka (Iparraldeko Donejakue bidea, kostatik). 12:00etatik 14:00etara, Plaza Berrian. Euskal Herriko eta Galiziako 15 ardoetxek hartuko dute parte.

Zentzuen gozamenerako

Gure Txokoa elkarteak Ardo Zuriaren Azoka antolatu du, bere 75. urteurrenean; larunbat eguerdian izango da, Plaza Berrian; atzo aurkeztu zuten, Donostian

LEIRE MONTES

«Tolosako Gure Txokoa elkar- tea bere 75. urteurrena ospatzen ari da aurten. Hirurogeita hamabost urte betetzeak zer edo zer berezia egitea merezi zuela pentsatu genuen. Horregatik, urtean zehar era guztietako ekitaldiak antolatu ditugu: kultur arlokoak, musika kutsukoak, gastronomikoak... Azken horietako batek elkartu gaitu gaur». Hala laburbildu zuten Gure Txokoako lehendakari Iñaki Garmendiak atzo Donostian eskainitako prentsaurrekoaren zergatia: Ardo Zuriaren Azoka aurkeztu zuten elkarte-koek, Euskal Gastronomia Kofradiaren egoitzan.

Larunbatean, hilaren 4a, izango da Ardo Zuriaren Azoka (Iparraldeko Donejakue bidea, kostatik). 12:00etatik 14:00etara, Euskal Herriko eta Galiziako 15 ardo mota dastatzeko eta erosteko aukera izango dute bisitariak, Plaza Berrian: Irulegi Jatorrizko Deitura Kalifikatua (J.D.K.) (Nafarroa Beherea), Getariako txakolina J.D. (Gipuzkoa), Bizkaiko txakolina J.D., Arabako txakolina J.D., Rias Baixas J.D. (Galizia) eta Ribeiro J.D. (Galizia), hain zuzen ere. Hiru txakolinak azoka berean elkartuko diren lehendabiziko aldia izango da larunbateko topaketa.

Azokaren funtzionamendua «horrelako ekitaldietan ohikoa dena» izango da: hiru euroren truke, edalontzi bat jaso eta lau ardo mota dastatzeko aukera izango du bisitariak.

Lehendabiziko topaketa izango da aurtengoa, baina elkarte-koek ez dute azkenekoa izatea nahi: «Datorren urtean,



Ezker-eskuin: German Arrien, Iñaki Garmendia, Jokin Bildarratz, Presen Urkizu eta Luis Mokoroa, atzo, Donostian. LEIRE MONTES

Tolosak 750 urte betetzen dituela eta, beste lurralde batzuetako ardoekin azoka antolatzea da gure asmoa. Aurrera begira ere, bi edo hiru urtez behin egin nahi dugu», azaldu zuten Garmendiak.

Agerraldian izan zen ere Presen Urkizu berastegierra, 2005eko *Nariz de Oro* saria. Haren iritziz, «Atlantikoko kutsua izango du topaketak. Garrantasun eta, batez ere, freskotasun puntua izango du». Irulegiko ardoen eta txakolinaren artean antzekotasunak aipatu zituen adituak, eta Galiziako ardoak «oso freskoak eta usain handikoak» direla. «Ribeiro zuten elkartearen sortu zen garai beretsuan jaiatu zen, gainera», gogoratu zuten, irribarretsu, elkarte-koek.

Elkarteak, «harro egoteko»

Gure Txokoa elkarte-koak zoriontzen hasi zuten bere jarduna Luis Mokoroa Euskal Gastronomia Kofradiako lehenda-

kariak: «75 urte urte asko dira elkarte batentzat. Belaunaldi aldaketa asko izan direla islatzen du horrek; baina, batez ere, sortzaileek zuten izpiritua-rekin eta jarrerarekin bat egingo segitzen duzuela. Euskal Herrian hain bitxiak diren elkarte hauen garrantzian sinisten jarraitzen duzue, eta txalotzekoa da».

Mokoroaren irudiko, «elkar- tea gure etxeko egongela bat bezalakoa da: elkarrekin bizi gara, lagunekin eta kideekin, etxearen giroa hautsi gabe». Elkartearen funtzionamenduan «kideen arteko konfiantza eta lankidetzaren oinarri» dela azpimarratu zuten.

Slow Food-ari buruzko azalpenak eman zituen, segidan, German Arrien Euskal Gastronomia Kofradiako idazkari eta *Slow Food*-eko ordezkariak: «100 mila bazkide eta 100 lurralde batzen dituen erakundea da *Slow Food*. Biodibertsitatearen, ekoizle txikien, tokian tokiko eta kalitateko produk-

PARTE-HARTZAILEAK ▶

Irulegi Jatorri Deitura Kalifikatua (J. D. K.) (Nafarroa Beherea).

- ▶ Les Vignerons du Pays Basque.
- ▶ Domaine Arrebea.
- ▶ Domaine Brana.

Getariako txakolina J. D. (Gipuzkoa).

- ▶ Talai berri.
- ▶ Ametztoi.
- ▶ Txomin Etxaniz.

Bizkaiko txakolina J. D.

- ▶ Itsasmendi.
- ▶ Mendraka.
- ▶ Gorrondona.

Arabako txakolina J. D.

- ▶ Beldui.

Rias Baixas J. D. (Galizia).

- ▶ Bodegas Gerardo Mendez S.L.
- ▶ Bouza do Rei.
- ▶ Lagar de Cervera.

Ribeiro J. D. (Galizia).

- ▶ Bodegas Casal de Arman.
- ▶ Herederos de Jesus Fringido.

tuen defentsa, eta horien inguruko ezaguera sustatzea du helburu, besteak beste». Gainera, herrien gastronomia eta jan ohituren berri emateko eta mantentzeko egiten du lan. «Euskal Herriko kulturaren adibide ezin hobea dira gure elkarteak. Zuen ere, harro egoteko modukoak da».

Mahaikideek esandakoa laburbilduz, gogoeta egin nahi izan zuten Jokin Bildarratz Tolosako alkateak, hiru ardatz aipatu: «Ez bizikidetzaren apurtu, presari eta gaur egungo bizi- modu azkarrari aurre egin, (*Slow Food*...), eta freskotasuna mantendu».

SASKIBALOA ▶

Aralarrek mailaz igotzea lortu du asteburuan

Futbol taldea ez zen izan joan zen asteburuan igoera lortu zuen Tolosako bakarra. Igoera fasea jokatu eta igoera lortu zuen TAKE Aralar saskibaloitaldeak Astigarragan. Liga 20 partidu irabazi eta 6 galduta, 4. postuan bukatu zuen talde tolosarrak. Larunbatean Donostiako Santo Tomas Lizeoari 44-62 irabazi zion eta igandean jokatu zuen finalean Andoaino Ganbara Euskaldunari 72-57 —honek finalerdia irabazi zion bezperan Astigarragari—. Horri esker, orain zeuden Lurraldekako 1. Mailatik Inter autonomikora igoko dira Aralarakoak. Azken bost partiduak irabazi eta (maila onean entrenatu) ondoren, «denboraldiko forma onean» iritsi dira igoera fasera. «Asteburuko bi partiduetan hamar puntu behetik joan arren, buelta eman eta irabaztea lortu genuen», adierazi dio HITZARI Jimy Perez entrenatzaileak.

SANJOANAK ▶

Koadrila Eguneko bazkarirako txartelak salgai

Sanjoanetako Koadrila Eguneko bazkarirako txartelak salgai jarriko dituzte ostiralean eta larunbatetan. Hilaren 3an, 4an, 10ean, 11n, 16an eta 17an erosi ahal izango dira, Orbela tabernan, 18 eurotan. 19:00etatik 21:00etara ostiralean, eta 11:30etik 13:30era larunbatetan. Informazio gehiago 943 65 23 84an (Eli).

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Agurrak. Zure agurrak paperezko edizioan ikusteaz gain, Interneten ere ikusteko aukera duzu, mundu guztiari zabalik.



KOMUNIKABIDEAK ▶

'Tolosaldeko ahotsa'k, 1.000 saio

Jon Miranda gidari duen Txolarre Irratiko saioak lau urte eta erdi darama eskualdeko gaiak entzuleei gerturatzen

IMANOL GARCIA

Txolarre Irratiko *Tolosaldeko Ahotsa* irratsaioak mila saio betetzen ditu gaurkoarekin. «Konturatu gabe iritsi gara kopuru honetara», azaltzen du Jon Mirandak, saioko gidariak. «Eguneroko jardunak, egunero egin beharreko lanak, konturatu gabe saioak bat bestearren atzetik egitea ekartzen du». Hain zuzen, egunerokotasun horri garrantzia handia ematen dio: «Egunero hor egoteak, hainbeste saio egiteak, bermea da irratia urruti iritsiko dela ziurtatzeko».

Astelehenetik ostiralera, 11:00etatik 14:00etara egiten da *Tolosaldeko Ahotsa*. 19:00etatik aurrera saioaren erreplikapena ematen da. «Inongo publizitate kanpainarik egin gabe, jende askok entzuten du irratsaioa», dio Mirandak. «Entzuleak oso fidelak dira gainera: matxuraren batengatik ondo ez denean iritsi seinalea ere, entzuleek jarraitu egin dute saioa eta lehiaketara berdin deitu izan dute».

Saioaren helburua Tolosaldeko berriak zabaltzea da. Irratia sortu zenean, Jon Ander Esnaolak eta Edurne Ayusok lan handia egin zuten eskualdeko eragileekin harremanetan jarritz informazio iturriak martxan jartzeko. «Tolosaldeari denon artean ahotsa jartzea da saioaren asmoa. Parte-hartzea bultzatu nahi dugu eta sortzen diren ekimen eta antolatzen diren ekitaldi guztien berri eman», azaltzen du Mirandak.

Denbora guzti hauetan hain-

EGITARAUA ▶

Tolosaldeko Ahotsa-ren gaurko saio berezia.

11:00. Joxe Landarekin eguraldia eta sorpresa.

11:30. Txolarre Irratiak Tolosako Udalarekin sinatutako hitzarmenaren erreportajea.

12:00. *Tolosaldeko Ahotsa*-n parte hartu duten esatariei elkarrizketak: Edurne Ayuso, Oihane Perez eta Jon Ander Esnaola.

12:45. Agenda: Tolosaldeko kultur ekitaldien berri.

12:55. Tertuliatxoa mila saioak ospatzeko. Ondoren, lehiaketa, disko eskainiak eta sorpresak.

bat gertakari izan dira saioan. «Behin, elkarrizketatu behar genuen pertsona, elkarrizketa hasi baino hamabost segundu lehenago, mikrofono aurrean zegoela buruz-behera erori zen. Ez zitzaion, ordea, ezer gertatu eta ederki egin genuen barre», gogoratzen du Jon Mirandak.

Hainbat kolaboratzaile ditu saioak: Joxe Angel Sarasola herri kiroletarako, Pablo Alberdi Tolosako azokaren berri emanez, Joxe Landa eguraldi gizona, eta zenbait taldek bere lekua izaten dute hilero. Igotz Alkorta, Amaia Goikoetxea eta Leire Zubeldia kazetaritzako ikasleek —larunbatetan egiten den *Hitzak hegan* saioko arduradunak— ere laguntzen dute saio bereziak egiten, gaurkoa, esaterako.



Leire Zubeldia, Jon Miranda eta Igotz Alkorta, Txolarre Irratiko egoitzan. I. GARCIA

Eskualde guztira zabaltzeko erronka

Txolarre Irratiaren aurtengo erronka eskualde guztira zabaltzea da. «Tolosalde guztira ez da ondo iristen seinalea. Horregatik beste antena bat jarri nahi dugu Tolosa inguruan hobeto jasotzeko seinalea», azaldu du Ainhua Oiarzabalek, irrati talde eragileko kideak. Egun Anostatik Villabonara 107,5 FM frekuntzian jasotzen da Txolarre, eta orain Tolosa eta Ibarra ingururako 101,2 FM frekuentzia egokitu dute. «Orain Altoz, Lizartza, Orendain... inguru horretara heldu nahi dugu, kali-

tatez. Horretarako planikazioa egin dugu bi urtetarako», zehazten du Oiarzabalek.

Finantziazioa da Txolarre Irratiaren behar nagusietako bat, eta atzo Tolosako Udalarekin urtebeterako diru laguntza jasotzeko hitzarmena sinatu zuten. «Tolosaldeko udaleki diru laguntza eskatzen diegu, biztanleko euro bat. Deneke, baino, ez dute betetzen hori», dio Oiarzabalek.

Villabonako Udalak zuen Loatzo irratiari zor dio hasiera Txolarrek. Izan ere, Udalak bertan behera utzi zuenean

irriti hori, eskualdeko zenbait lagunek eutsi nahi izan zioten komunikabide horri eta hori izan zen gero Txolarre Irratia sortzeko hazia.

Pasatu berri diren Gabonetan lau urte bete zituen Tolosaldeko irratiak. Egun lehenatasuna baliabide teknikoek dituzte, Oiarzabalek zehazten duenez: «Orain dagoen programazioa kalitate hobegoarekin zabaltzea nahi dugu, azpiegitura aldetik hobetzea. Daukagun programazioa ondo eskaintzea da gure asmoa». ◀

iragarki laburrak ▶



Abaltzisketa. Sei etxe atxiki, sukaldea, egongela, bainugela eta terrazarekin, lehen solairuan, hiru logela, batek bainua du, bainugela eta bi terraza bigarren solairuan, bi autorentzako garajea eta txokoa beheko solairuan.

Anoeta. Duplex etxebizitza estreinatzeko salgai. 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, terraza eta garajea aukeran.

Asteasu. Alokairuan edo salgai 1.050 m²-ko pabilioia, bi solairukoa, 250 m²-ko tarteko solairua, era guztietako osagarri eta hobekuntzerekin.

Belautza. 225 m²-ko pabilioia

alokairuan. Prestatua.

Berrobi. 50 m²-ko etxebizitza behe solairuan, berritua.

Berrobi. 100 m² dituen bi plantako borda, berrituko. 75 m²-ko lursaila, 35 eta 50 urteko Laritz pinuekin.

Bidania. Bi familientzat egokituriko sei etxe salgai. Garajea, sukaldea, egongela, bainugela eta terrazarekin lehenengo solairuan. Hiru logela, bainugela eta terrazarekin bigarren solairuan.

Donostia. Sagues. 70 m²-ko duplexa, berritua, igogailua, Groseko hondartzara ikuspegiak.

Errioxa. Hormilla, Naxeratik 3

kiloetrotara, 11 baxlet adosatua, lorategi eta igerilekuarekin urbanizazioan (151.000 euro).

Ibarra. 85 m²-ko etxebizitza salgai. Kanpoaldera. Bizitzera sartzeko. Garajea aukeran.

Lasarte. 65 m² erabilgarriak dituen etxebizitza salgai Oztaran kalean, hirugarren solairuan. Kanpoaldera.

Lizartza. 14.000 m²-ko pabilioiak eraiki berriak salgai, 350 m²-tik hasita.

Tolosa. Gudari kalean, Samaniego kalearekin izkina egiten, 110 m²-ko etxebizitza. Kanpoaldera, eguzkitsua, igogailua, berrikuntza behar du.

Tolosa. lurre, 98 m²-ko etxebizitza, kanpoaldera, eguzkitsua, igogailua, trastelekua eta garaje marra.

Tolosa. Santa Klara kalean, 90 m² dituen etxebizitza berritua salgai. Atzealdean baratz propioarekin.

Tolosa. Gernikako Arbolan, 155 m²-ko etxebizitza salgai, kanpoaldera, berrituko.

Tolosa. Pablo Gorosabalen, duplexa estreinatzeko.

Tolosa. Letbuga kalean, 105 m²-ko etxebizitza, berrituko.

Urretxu. 780 m²-ko pabilioia, 300 m²-ko tarteko solairua. Guztia ipinita, erakusketa zabal.

ALEGIA ▶ KULTURA

«Maila handiko» emanaldia, Unanue Kamara Koralararena

Txintxarri abesbatzak gonbidatuta etorri zen Ondarroako ahots zurien taldea ordubete iraun zuen saioa ematera

NOELIA LATABURU

Ondarroako Unanue Kamara Koralak iragan larunbatean Alegiako San Joan Bataiatzailearen elizan eskaini zuen kontzertuak txalo zaparradak eragin zituen bertaratuen artean, izan ere «maila handia» erakutsi zuen ahots zurien talde gazteak.

Txintxarri abesbatzako Nerea Pikabeak adierazi duenez, «indarra, sendotasuna eta abesteko oso gustu oneko taldea» da Ondarroakoa. eta

«urte gutxitan lortu duen profesionaltasuna erakutsi zuen taldeak», gaineratu du. Hamalau abeslariaren emanaldiak ordubete iraupena izan zuen, Estibalitz Arrizabalagaren zuzendaritzapean. «Ahots berdinetako abesbatzak ez dira ugari, eta beraz horrelako aukerak biziki estimatzen dituzte entzuleek».

Kontzertuari hasiera emateko, euskal konpositoreen harmonizazioa aukeratu zuten: David Azurza tolosarrak eta Javi Busto hondarribiarrak

moldatutako kantu herrikoiak eskaini zituzten, *Maritxu nora zoaz* edo *Izar dantza*, esaterako. Abesti hauen ostean polifoniari egin zioten tartea, Estesen *Kyrie* lana, besteak beste.

Eskaintzarako tarterik ere izan zuten, izan ere, kontzertuaren amaieran Gershwinen *Embraceable you* abesti ingelesa koruko kide ama izan berriari eta haren seme jaioberriari eskaini zioten. Behin kontzertua amaituta, afaria izan zuten herriko elkarteetan, Txintxarri abesbatzako kideekin batera.

AMEZKETA ▶ KULTURA

Buruntzunzinekoak asteburuarekin «pozik»

Larunbatean zuzendaritza berria izendatu eta igandean ingurutik txangoa egin zuten

N. LATABURU

Ekitaldiz beteriko asteburuaz igaro dute Buruntzun elkarteko kideek eta «pozik» azaldu dira emaitzekin. Festa larunbatean hasi arren, ostiralean 12 pertsona joan ziren txabolarara, giroa berotzen hasteko.

Larunbat goizean, berriz, zuzendaritza berria izendatu zuten. Guztira 72 bazkide dituzte elkarteak; hala ere, 24 baino ez ziren direktiba aldatetako ekitaldian izan. Naiara Beloki, Mikel Goñi, Ainara Galartza, Joseba Goñi eta Uxue Ifurritza 22 eta 24 urte bitarteko gazteek osatuko dute zuzendaritza dotozen urteetan.

Arratsaldean, berriz, 35 la-

gun inguru bildu zen Alfredo Morazak Aralarri buruz eskainitako hitzaldi eta diapositiba emanaldira. Hitzaldia hiru zatitan banatu zuten: Aurrehistoria, Erdi Aroa eta Aro Garaikidea. Artzantza, basogintza eta meatzaritza izan zituen hizpide, besteak beste, beti ere diapositiben laguntzarekin. Hitzaldia bukatzerakoan batzuk herrira bueltatu ziren, baina 22 pertsona txabolan bertan geratu ziren gaua lagun artean igarotzeko. Espazio aldetik «nola edo hala» moldatu zirelarik.

Gaua txabolan pasa ostean, igande goizean ibilaldia egin zuten Arritzaga aldetik Pardehuts aldera, Alfredo Moraza bera gidari izan zutelana.

ALEGIA ▶

Uda 05 kanpaina martxan da bi ikastaroekin

Uda 05 kanpaina Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Alegiako Udalak antolatuta dute eta 8-16 urte bitarteko gazteentzat. Bertan parte hartzeko izen-ematea, Kultur Etxean izango da 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:30era. Piraguismoa (uztailak 4tik 9ra) eta patin irristaketa (ekainaren 27tik uztailaren 1era) dira Alegian eskainiko diren ekintzak.

ALEGIA ▶

Eskulan tailerreko lanen erakusketa

Gaurtik aurrera Alegiako eskulan ikastaroan parte hartu duten ikasleen lanak osatutako erakusketa izango da ikusgai Inaxio Begiristain Kultur Etxeko aretoan. Erakusketa ekainaren 11 bitarte mantenduko da eta bisitatzeko ordutegia goizez 10:30etik 12:30era eta arratsaldez 16:00etatik 20:00etara izango da. Margoak eta keramika ikusiko dira, besteak beste.



Eskulan tailerreko ikasle bat koadro bat margotzen. NOELIA LATABURU

AMEZKETA ▶

Hirugarren adinekoentzat gimnasia saioak

Hurkoak bultzatuta, bereziki hirugarren adinekoentzat zuzendutako gimnasia saioak antolatuta dituzte Amezketa. Aspezketan gimnasia saioak Ugarte auzoko osasun zentroko itxaron gelan 16:00etatik 17:00ak bitarte izaten dira, eta ostegunetan Amezketa gela balioanitzean, ordutegi berbera dutelarik. Ez-titxu Unzain fisioterapeutak ematen ditu saioak.

hitza txokoa ^{lagunen}

HITZAren HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAren harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honekin
TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

LIZARTZA ▶

Interneti buruzko ikastaroak KZgunean

Lizartzako KZgunean ekainean oinarrikzo interneteko 20 orduko 2 ikastaro eskainiko dituzte. Ekainaren 6tik 17ra bitarte izango dira 16:00etatik 18:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Nahiz eta egutegia finkatuta izan, izena ematen duen jendearen arabera aldatetako egin ahal izango dira. Izena emateko edo informazio gehiagorako 943 68 22 45 zenbakira hots egin beharko da.

GAZTELU ▶

'Sang Woo y su abuela' filma etzi kontzejuan

Ostiral honetan Lee Jung-Hyang-en *Sang Woo y su abuela* filma izango da ikusgai Gazteluko kontzejuan. Ohikoa den bezala 19:30etatik aurrera eskainiko dute pelikula.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarralde.** Osasun ebea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroako dispen.: 672637
- ▶ Asunzio klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)

- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe Tolosa: 652889
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitza autobus: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurramendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

IBARRA ▶ KIROLA

Gorritira irteera antolatu du HaitzetanRaju taldeak

Ibilbidearen ondoren bazkaria egingo dute

I.TERRADILLOS

Aurten ere, eta hirugarren urtez jarraian Gorritira mendi irteera antolatu du Ibarrrako HaitzetanRaju Mendi Taldeak. Ekainaren 5ean, hau da, datorren igandean izango da irteera eguna. Ibarrrako plazatik 9:00etan aterako dira, eta 3 edo 4 orduko ibilaldia egin eta gero iritsiko dira Gorritira, eta bertan, zikiro jate ederra egingo dute. Jai eta lagun giroan bazkaldu ondoren jokuak egingo

dituzte eta arratsalde partean itzuliko dira Ibarrra, horretarako autobus edo autoak prest izango direlarik.

HaitzetanRaju mendi taldeetik jendea animatu nahi dute egun osoko irteera honetan parte hartzeko. Izena eman nahi duenak edo mendi irteerari buruzko argibiderik nahi izan ezker, Ibarrrako Atari tabernara, edo Tolosako Denak tabernara jo beharko du, edo bestela, 652 715 800 zenbakira hots eginez.



Txalaparta doinuak izan ziren pasa den urteko irteeran. HITZA

IBARRA ▶ KIROLA

Lauburuk gorabeheraz jositako denboraldia izan du

Berez mailaz jaitsi bada ere, oraindik lekua izan dezake Lehen A mailan

IÑIGO TERRADILLOS

Gorabehera handikoa izan da 2004-2005 denboraldia Lauburu kirol elkartearentzat, lorpen handiak zenbatu arren, porrotak ere ikusi dituztelako.

Pasa den urteko maiatzean hasi zen guztia, bi babeslek ezin zutela taldeari laguntzen jarraitu adierazi zutenean. Taldea defizit handiarekin utzi zuen honek. Ibarra Gipuzkoako lehen taldea zela kontuan hartuta eta arazoa konpontze aldera erakundeekin hitz egitea erabaki zen. Ibarrrako Udalaren erantzuna oso ona eta azkarra izan bazen ere, Tolosako Udaletik eta Diputaziotik ez zuten ekonomikoki laguntzeko borondaterik azaldu.



2004-2005 denboraldiko Ibarra areto futbol taldea. I.TERRADILLOS

Ondorioz, eta taldeak zilarrezko ligan izena eman arren, kategoriaz jaitsi beharra izan zuen, Lehen A mailara hain zuten. Ordurako maila horretan

izena emateko epea bukatu egin zen, baina, areto futboleko batzordeak Ibarrraren kasua aztertu ondoren 17 talde osaturiko multzoan sartu zuen.

Ekainaren bukaeran Ibarrrak oraindik ez zuen taldea osaturik. Prados, Karrera eta Zabalo beterranoen laguntzarekin eta jokalariek gazteekin eratu zuten taldea eta aurtengoa trantsiziozko denboraldia izango zela pentsatu zen.

Denboraldia nahiko gaizki hasi zuten, beraz esperientzia falta nabari zen. Horrela, lehenengo buelta 12 punturekin amaitu zuten. Gazteak pixkanaka ari ziren mailara egokitzen, baina beterranoak hasiko ziren arazoez. Zabalok ezin zuten normaltasunez entrenatu lan

kontuengatik eta Karrera har-tuko zuen ardurua osoa. Orduan Victor fitxatu zuten, tolosarra zertxobait aurreratu eta golak sartzen gehiago asmatzeko helburuz.

Baina, Karrera lesionatu egin zen segituan eta lesionaturik egon zen Pradosek jokatzen hasi beharra izan zuen oraindik osatu gabe egon arren. Xavi fitxatu zuten, baina zortea ez zuten alde izan jokari honekin ere, 15 egunen buruan radioa hautsi eta txapelketa utzi beharra izan baitzuen Karrera lehenago bezala. Hala eta guztiz ere, bigarren bueltan nahiko ondo aritu ziren eta 19 puntu lortu zituzten. Nahikoak izan behar zuten bildutako puntuak, baina zilarrezko ligatik Universidad de Navarra taldea jaitsi zenez, Ibarra ezinbestean maila galdu zuten.

Ez dago dena galduta, ordea, eta taldean maila berreskuratuko dutenaren esperantza dute, lekua geratu bailiteke beste talde batentzat.

Bestalde, nazional mailako Lauburuk eta probintzialetan lehiatu den taldeak egin duten lana aipatzekoa da. Lehenak Espainiako Kopan final-laurdenetara iritsi ziren eta bigarrenek Gipuzkoako Kopako finale-ra iritsi eta 4-3 galdu zuten.

hilberriak ▶

eskialak hartzen dira: 19:00ak arte ▶ 687 53 02 58 ▶ tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Eugenio Lopetegi Kortajarena
Jauna

—Goian bego—

Urak dakarrena
urak daroa
zuk emandakoa
gurekin geratzen da

Ainararen lagunak

IBARRA, 2005eko ekainaren 1a

ARESO ▶ SOKATIRA

Launakakoan: Areso B taldea bigarren

320 Kiloko finalera bi taldeak igarota, egindakoarekin «konforme» daude

JAIONE ASTIBIA

Igandean jokatu zuten Abadiñon launakako lur gaineko sokatirako Euskal Herriko sariketa, 320 kiloto eta Areso B taldea bigarren gelditu zen 7 punturekin, Nuarbeko A taldearen ondoren, puntu bakarera.

Finala «mekosoa» izan omen zen, zortzi talde izaki, zazpina saio egin behar izan zituzten eta. «Luzea gertatu zitzaigun, hiru ordu baino gehiago egin genituen sokan, azkenarako», argitu zuten atzo taldekoek, «tiraldi gehientsuenak ere oso gogorak izan ziren», gaineratu. Orotara, Nuarbe A-ren aurkako biak eta Goiherri B-ren aurkako bakarria galdu omen zuten; gainerakoek irabazi egin zieten eta hala ere, «justu justuan, puntu bakarrera gelditu ginen», argitu zioten HITZARI. Ondorioz, Areso B taldea sail-

kapenean, bigarren gelditu zen.

Baina, ez zen finaleko herriko parte-hartzaile bakarria izan. Hasierako 16 taldeetatik, Aresoko bi taldeek lortu baitzuten finaleko zortzikotean sailkatzea. Areso A ere hortxe aritu zen lehian, beraz, nahiz eta kasu honetan, atzeneko lekuan gelditu.

Taldeko kiden esanetan, beraintzat lorpen handia da, bi taldeek aurrera jarraitzeko aukera lortu izana: «Alde horretatik, ongi. Apenas egin dugu prestaketa saiorik, azken aste hauetan: aurrera jarraitu edo ez erabakitzeko bildu gara bakarria, eta zaila izan da erabakia. Behin aurrerako bidea hartuta, bi taldeekin egin izanarekin konforme gaude», adierazi zuten. Taldearen egoera oso samurra ez izan arren, aurrera egitea erabakia dute, ordea, eta egutegia bete egingen dute.

LEITZA ▶

Txirrindularia babesteko dei egin du Aizan elkarteak

Zonaldeko errepideetan izan diren istripuekiko kezka azaldu du

J. ASTIBIA

Aizan txirrindulari elkarteak igorritako ohar baten bidez, txirrindulariak babesteko dei egin die auto gidariei.

Oharrak dionez, «inguruko errepideetan izandako azken gertaerak direla eta», eskari hori egiteko beharra zuten. Lehendabiziko ahapaldia, auto batek eragindako txirrintu istripuz, maiatzaren 20ean zendu zen Joseba Olazabalen senitarteko eta inguruko laguntzat egiten dute, beren «doluminik sentituen adieraziz». Eta horren harira, auto gidariei («txirrintularien segurtasuna bermatzen arren»), «beharrezko ez diren arriskuak» ez hartzeko eskaera egin nahi diete: «Mesedez, besteen bizitzarekin ez jostatu», dio oharrak.

LEITZA ▶ XXVII. KULTUR ASTEA

Jagoba Errekondoren azalpenak adi jarraituz

Entzule askorekin, saio parte-hartzailea suertatu da erabat herenegun iluntzekoa

J. ASTIBIA

Oso hitzaldi arrakastatsua suertatu zen, herenegun iluntzean, Kultur Asteko arratsaldetako saioei hasiera eman ziena. Jendetsua eta parte-hartzailea, erabat: Jagoba Errekondo etorri zen eta bertan bildu zirenek, nekazalkoari dagozkion galderak egiteko baliatu zuten aukera, asko papera eta arkatza eskuan zutela, entzuten zutena txukun jasotzeko asmoz, eta, noski, baita egin ere.

Entzule asko bildu zen saioan eta, hasteko landareen oinarriko egituraz sarreratxo bat egin ondoren, horien galderei erantzuteko prest jarri zen: «Zaina, egurra, hostoa, lorea, hazia eta berriz, ere zaina. Horixe da landareen egitura: hortxe egonen da edozein zalan-tzaren argibidea», zioenez.

Eta lana izan zuten, izan ere galderak, zalatzak eta iritziak, erantzun, argitu eta, entzun eta eman zituen, bi ordu baino gehiagoko saioan. Jendea gustura, bere irratsaioen jarraitzaileak izaki, bertatik bertara erantzunak jasotzeko aukera izan zuelako, eta hizlaria ere bai, «ohituta» omen dagoen arren, eztabaida oso desberdinak sortzen omen direlako herriko saio horietan: mugarrak, ilargi aldien eraginak, izurriteen aurkako tratamendu «naturalak», ongarrizaketa, landare berezien zainketa...

Elikagai transgenikoen inguruan suertatu zen eztabaida



Saio luzea egin zuen Jagoba Errekondo, bertaratu zirenen zalantzei erantzunez. JAIONE ASTIBIA

ere interesgarria suertatu zen oso eta Errekondo berak argi utzi zuen bere jarrera: «Zer jaten dugun zaindu behar dugu, bihariarekin jokatzeko ari gara eta. Buruz jokatu. Pozoinik ez jan», aholkatu zien entzuleei.

Orohar, «lehenengo etxe eta baserrietan egiten zen nekazari-tza» moduaren defentsa ir-moa egin zuten.

Duela bi urte etorri zen lehenbiziko aldiz, eta hurrengorako hitzordua eginda gelditu ziren.

GAUR ▶

Gaia. Irak, Afganistan: zaharrak berri.

Emaila. Joseba Iriondo.

Ordua. 20:00.

Tokia. Zinema.

LEITZA ▶ GIZARTEA



Presoen etxeratzea eskatuz, elkarretaratzea

J. Astibia ▶ Igande eguerdian, euskal preso politikoen etxeratzea eskatuz, elkarretaratzea egin zuten herriko plazan, bertan hainbat hamarkada lagunek parte hartu zutelarik. Elkarretaratzean, gogora ekarri zuten, bestalde Igor Astibia herri-

ko presoak «jada sei hilabete bete dituela, besterik gabe, espetxera eraman zutenetik», eta «behingoz», «hau bezala, guztiek ere, aske eta etxean egon behar» dutela aldarrikatu zuten kontzentrazioan bildutakoek. JAIONE ASTIBIA

Titulazio Ofizialak
ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
 SARRERA: D.B.H./ HSAOL BATXILERGOA EDO ANITZKOAK



2005-2006 Kuartzea

DISEÑO ETA KREAZIO-AHALMENEAN
 OINARRITUTAKO HEZKUNTZA

DISEÑO ETA KREAZIO-AHALMEN SAILA

- KREATIBITATE AZTERKETA
- KOLORE, MARRAZKETA ETA OSAKETA
- PUBLIZITATE DISEÑUA ETA MARKETING
- IRUDI KORPORATIBOA ETA PUBLIZITATEA
- IKUSMEN KOMUNIKAZIOA

TEKNOLOGIA BERRIETAKO SAILA

- LOGOTIPO DISEÑUA
- IRUDIEN TRATAMENDU DIGITALA
- MAKETAGINTZA ETA PRODUKZIO EDITORIALA
- INTERNET, WEB DISEÑUA & MULTIMEDIA
- ARGAZKILARITZA DIGITALA

www.ceinpro.es



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Uzturpe ikastolak Ikastolaren Eguna ospatuko du larunbatean, eta bazkarirako txartelak salgai daude gaur arte ikastolan eta Zubiaurre tabernan.
Ibarra. Haitzetan Raju mendi taldeak Gorritira irteera antolatu du iganderako. 09:00etan plazatik abiatu eta lau orduko ibaldia egin ondoren iritsiko dira. Bazkalostean jokoak izango dira. Izen-ematea, ohiko lekuetan.
Tolosa. Ingurumenaren Nazioarteko Egunaren inguruan, Aste Berdea antolatu dute. Gaur, klima aldaketari buruzko erakusketa Kultur Etxean.

SANJOANAK

Tolosa. Sanjoanetako Koadrilen Eguneko bazkarirako txartelak ostiraletan 19:00etatik 21:00etara eta larunbatetan 11:30etik 13:30era egongo dira salgai Orbela tabernan 18 eurotan. Informazio gehiago: 943 65 23 84 (Eli).
Tolosa. XVII. San Joan Areto Futbol Txapelketa antolatu du Arsenal kirol elkarteak ekainaren 17tik 26ra 1995-96 eta 1993-94 urteetan jaiotako Tolosaldeko eta Leitzaldeko neska-mutilentzat. Izen-ematea: Shanti Kirolak (943 65 34 24).

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.
Tolosa. Azpiroz, Amaro, 9. 943 67 51 18.

TXOLARRE IRRATIA

1.000. saioa betetzen du 'Tolosaldeko Ahotsa'-k
11:00-14:00. Saio berezia egingo dute Txolarrekoek gaur, *Tolosaldeko Ahotsa* saioak 1.000 saioa betetzen duela behar bezala ospatzeko. 11:00etan eguraldia Joxe Landarekin, eta jarraian sorpresa; 11:30ean atzo Txolarre Irratiak Tolosako Udalarekin sinatutako hitzarmenaren inguruko erreportajea; 12:00etatik aurrera *Tolosaldeko Ahotsa* magazinean parte hartu duten esatariei elkarrizketak: Eduarne Ayuso, Oihane Perez eta Ion Ander Esnaola; 12:45ean agenda: Tolosaldeko kultur ekitaldien berri; 12:55ean tertuliatxo mila saioak ospatzeko; lehiaketa, disko eskainiak...

▶ **HITZA** ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Gaztekoenak ere biltzen dira larunbatetan euskara ikasteko. HITZA



Txangoak egitea ere beharrezkoa dela diote; argazkian Erriberrin. HITZA

Eskualdean integratzen

TOLOSALDEA ▶ Herrialde batetik eta bestetik etorritakoek euskara ikasten dihardute Irazkiren laguntzarekin; txangoak ere egiten dituzte Euskal Herritik



Portugal, Brasil, Ekuador, Peru, Maroko, Dominikar Errepublika... Leku askotako jendea ari da ikasten. HITZA

IRATXE ETXEBESTE

Ezin dugu ahanzi inmigrazio fenomenoak oinarrizko ekonomiko duela hein handi batean, haien lurraldea, eta, horrekin batera, beren ingurunea eta familia utzi, eta beste herrialde batera doazenez haien bizi-maila hobetzea baitute helburu». Horrekin batera, etorkinek lurralde berri batera egokitu eta herri horretan gizarteratu behar izatea inmigrazioaren «erronka handienetakoa» dela esan dute Irazkikoek. Eta horren jakitun, batetik eta bestetik Tolosaldera etorritakoek laguntza ematen ahalegintzen ari dira, ahalik eta errazean eskualdera egokitu daitezten.

Horrexegatik antolatu zituzten orain hilabete batzuk etorkinei zuzendutako euskara eskolak. 2003an hasi ziren lanean helduekin, ikasturte osoan larunbatero doako ikastaroak eskainiz. Haien seme-alabak hezkuntza sistemara «modu erraz eta egokian» integratzearen beharra ikusita, baina, haurrei eta gaztetxoei zuzendutako eskolak jarri zituzten geroago abian, eta, orain, familiako kide guztiak biltzen dira Tolosako Kultur Etxean, talde ezberdinetan.

Bestalde, eta «ingurunearen ezagutzak etorkinen integrazioa errazten» duela iritzita, irteera ezberdinak antolatu dituzte urtean zehar Irazkikoek Euskal Herriko museo, mendi eta herrietara, «euskal kultura eta geografiara hurbiltzeko» helburuarekin. Etorkizunean ere ildo beretik jarraituko dute.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Maria Gurrutxaga Manzano
(Ibarra). Gaur 2 urte. Zorionak eta muxu bat Jokin eta familiaren partetik.



URTE ASKOAN
Izaskun Jauregi.
Bedaioko familia eta bereziki Igor eta Aitorren partetik.

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaiaberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!